

Trenaren Lagunen Elkarteek I. Bilkura egingo dute gaur

DONOSTIA

Trenaren Lagunen Elkar-teak antolatuta, 300 la-gun inguruk Donostiatik Zumaia-arako bidea egingo dute gaur Eusko Trenbi-deetako lokomotora histo-rikoetan. Azpeitiko mu-seoa zabaldu zela urtebete da jada, eta urteurrena ait-zakia hartuta garraibide horren aldeko elkateetako ordezkariak bildu nahi izan ditu Gipuzkoako Trenaren Lagunen Elkar-teak. Iparraldeko ordezkariak, eta baita Akitania eta Ingalaterrakoak ere etorri dira Donostiara bidaia be-rezi hau egitera.

Ekitaldiak goizean goi-zetik hasiko dira. Amarako geltokian Eusko Trenbi-deetako lehengo materiala erakutsiko dute, eta ondo-ren tren historikoak Zu-maiarako bidea hartuko du, goizeko hamarrak al-dera. Lehenik ASEA ma-kinak, Urolako bi kotxe metalikok eta Vascong-a-dosetako beste batek osa-tutako tren irtengo da gel-tokitik. Bost minutu ge-roago baparezko lokomo-tora irtengo da Zumaia al-dera. Ia hiru orduko bidea egin ondoren, Zumaian autobusak izango dituzte handik Azpeitiko Tren Museoraino joateko.

Europako geometrilariak Donostian daude Konferentzian bilduta

Delineatzaile eta topografoen mugimendu librea dute helburu

Europako delineatzaileak, **E**agrimentsoreak eta topografoak biltzen dituen EGoS taldea kongresuan bilduta dago Donostian. Atzo hasi eta bihar arte bederatzi estatutako ordezkariak ariko dira eztabaidan; helburu nagusia Europako Batasunaren barruan profesionalen arteko mugimendu librea lortzea dute.

JONE LARRAÑAGA / DONOSTIA

EGoS taldea (Europako Geometrilarien Elkargoa) duela hiru urte jaio zen, Europa osoan arlo horretan lan egiten duten profesionalak bildu eta lanbiderako merkatu bakarra lotzeko asmo-tan. Helburu hori iristea, ordea, lan nahiko zaila da, Europako Batasuneko estatu bakoitzeko titulazio eta legeak ezberdinak baitira oso.

Gutxinaka titulazioen homolo-gazioa lortu eta legeak batera-tzeko lanean dihardu du EGoS taldeak, eta bide hori urratzen jarraitzeko antolatu dute konfe-rentzia Donostian. Geometri-lariak sei hilean behin biltzen dira une horretan Europako Batasu-neko lehendakaritza betetzen duen estatuan. Oraingo honetan ardura hori Espainiak du eta EGoS taldeak kontinentearen



Geometrilariak merkatu bateratua lortu nahi dute euren lanbidean.

hegoaldean duen ordezkari-tza sendotu nahi du bide batez. «Espainia eta Portugalgo erakun-deak gure taldean sartzeko gon-bita egin nahi dugu, ordezkari-tza zabalagoa behar baitugu Euro-pako hegoaldean. Europako Ba-tzordeko lehendakaritza Espai-niaren esku egonik, oraintxe du-gu hori lortzeko aukera», zehaztu zuen atzo Wilfried Grunau EGoS taldeko lehendakariak.

EUSKADIKO DELINATZAILEEK ANTOLATUTA

Donostian egiten ari den kongre-sua Euskadiko Delineatzaileen Elkargo Profesionalen Kontsei-luak antolatu du. Erakunde hori izan zen, hain zuzen ere, kide oso

gisa EGoS elkargoan sartu zen Estatuko lehen profesionalen tal-dea. Juan Carlos Martin bertako lehendakariaren arabera, bene-tan oso garrantzitsua da hemen-go profesionalentzat Europako atea zabalik izatea eta «guretat beharrezkoa da beste profesio-nalekin baldintza berberetan le-hiatzea».

Horregatik Donostiara bildu diren profesionalak EGoS tal-dearen berri eman nahi diete, eta erakunde kide egin daitezten haiei interesa piztu. Euskadiko Delineatzaileen Elkargo eta Profesionalen Kontseiluak etor-kizunari begira dagoen talde ba-teko kide dela jakinarazi nahi du gainera.

Guatemalako sarraskia gogor gaitzetsi dute GKE-ek

DONOSTIA

Euskal Herriko guber-nuz kanpoko erakundeek (GKE) gogor gaitzetsi du-te herenegun Guatemalako iparraldean nekazarien kontra egindako sarraskia. Hamar urtean Mexikoko erbestean bizi izandako nekazariak iaz itzuli ziren jaioterrira, eta itzuleraren lehenengo urteurreneko ekitaldiak prestatzen ari ziren, ustez Armadako ki-deak Alta Verapazko etxalde batera sartu eta erasoan hasi zenean. Oraindik zehazteke da-goan arren, hamar lagune-tik gora hil ziren.

Nekazarien giza esku-bideen bortxaketa horrek erreakzio gogorrak eragin ditu Euskal Herrian. Mu-garik Gabe taldeak gerta-kariak berehala ikertu eta erantzukizunak argitzeko exigitu du, eta dei berezia egin die hemengo erakun-deei Guatemalako Gober-nuaren aurrean giza esku-bideen kontrako bortxake-ta hau gaitzets dezaten. Es-kakizun bera egin du So-depaz erakundeak ere. Hi-rugarren Mundua eta Ba-kea elkarteak bestalde, Guatemalan nekazari-ek bizi duten egoera gogora-razi eta hango Armadaren zigorgabetasuna salatu du.

laguntzailea:
Egunkaria

EUSKALDUNON

Urriaren 21ean, larunbata, gaueko 11tan **BERBENA** egongo da moila inguruan,
TXAKUN TALDEA eta **GOZATEGI ANAI-ARREBEKIN**.

æki eguna

1995eko urriaren 22an
ZUMAIAN

12.00etan: **AEKren EKITALDI NAGUSIA.**
12.30etan: Zarautzko **ALPROJA ANTZERKI TALDEA**, Iparraldeko **HERRI KIROLAK**, **BERTSOLARIAK: M. Lujanbio, E. Arozena, J.M. Irazu, I. Maia.**
13.30etan: **ESTROPADA.**
14.30etan: **BAZKARI HERRIKOIA.**
Eta **TRIKITILARIAK, TXARANGAK, HANKALUZEAQ, TXALAPARTARIAK, AZOKA, BANDA, DANTZARIAK** eta...
ZUK ZEUK EGINGO DUZUNA, ZEÜ BAITZARA GURE PROTAGONISTA!
ZATOZ ZUMAIARA !!

15.30etan: **KANTALDIA NEREA** eta **MIKEL TXANBELA TALDEA.**
16.00etan: **ERROMERIA MAIXA, ITZIAR** eta **GARBIÑE.**
18.00etan moilan: **ROCK KONZERTUA AMA SAY** eta **E.H. SUKARRA.**
18.00etan: **BERBENA, DRINDOTSekin**
Egun osoan zehar **HAURREN PARKEA, SEBASTOPOLEKO TITIRITEROEN** eskutik.

Euskal Herri OSOAN
æki AURRERA!